

ZURE IZENAREN...

Mikel Labaka Aranguren

Errezil

Zure izenaren bila nenbilela
gure ingurua udaberrizko lorez
jantzi zen

Zure izenaren bila nenbilela
haizearen kontra
egin nuen hegan

Zure izenaren bila nenbilela
zuhaitzei galdetu nien
zu non zeunden

Zure izenaren bila nenbilela
olatuen konpasean
kilimusi egin zenidan

Zure izenaren bila nenbilela
adeitasun handiz
mintzatu zintzaizkidan

Zure izenaren bila nenbilela
ikusi batera
ustekabeaz azaldu zinen

Eta...

bakardadezko zelaietan
galdu ginen biok betiereko